

Udako Euskal Unibertsitatea



Euskara eta etorkinak.  
Nola lagun dezake euskarak bizikidetzaren hobetzen


Laborategia

Iruñea, Ekainak 26-27, NAPI/INAP



Antolakuntza  
Euskaltzaleen Topagunea Elkartea

Dinamizatzailea  
Iñigo Retolaza



## Zergatik da garrantzitsua gai hau hausnartzea?

Euskal Herria gero eta anitzagoa da. Gero eta etorkin gehiago daude eta gero eta hizkuntz gehiago hitz egiten dira gure herrialdean. Aniztasun soziokultural honen eragina eguneroko bizitzan eta harremanetan nabaritzen da: eskolan, kalean, erakundeetan, politika publikoetan, enpresetan eta abar. Errealitate honek hainbat galdera eragiten ditu. Nola kudeatu kultura ezberdinen arteko tentsioak eta gatazkak? Zer ikasi behar dugu batak besteengandik? Ze irizpide gidatu beharko lukete hiritar ezberdinen arteko harremanak? Nola kudeatu asimilazioa eta elkarbizitzaren arteko tentsioak?



Era berean, euskarak bere erronkak ditu erraza ez den testuinguru honetan: gaztelerak duen eragina gizartearen globalizazioaren

eraginak enpresetan, euskarari dagokien politika publikoen berritze beharra, gatazka politikoaren eraginak gizartearen barneko harremanetan, etb. Elementu guzti hauek eragin handia dute euskararen onarpen eta erabileran etorkinen komunitatean. Nola bermatu euskararen zabalkuntza testuinguru honetan? Zer funtzio izan dezakete etorkinak zabalkuntza honetan? Nola hurbildu euskara etorkinei? Nola kudeatu izan genuen beste garai batzuetan halako egoerak? Zer politika publiko mota behar ditugu gaur egun? Zeintzuk dira gure beharrak (euskaldun eta etorkinenak)?

## Zein da laborategiaren asmoa?

Hau dela eta benetan garrantzitsua ikusten dugu hausnarketa sakon bat egitea gai honi buruz. *Nola lagun dezake euskarak bizikidetzaren hobetzea?*

Bizikidetzaren, kulturen eta hizkuntzen arteko harremanak, euskararekiko dauden aurreiritziak eta estereotipoak, euskaltzaletasuna, etorkinengan ditugun estereotipoak, eleaniztasuna eta aniztasunaren potentziala eta beste hainbat kontzeptuen esan nahiak eta praktikak ber-begiratu eta berritu nahi ditugu.

## Zergatik laborategi bat?

Ohiturazko ikastaro akademiko bat beharrean laborategi sortaile bat proposatzen dugu. Laborategiaren dinamika zabalagoa, inklusiboagoa eta pedagogikoagoa dela iruditzen zaigu anitza den testuinguru honetarako. Taldean dauden partehartzaile guztien esperientziak eta ikasteko erak kontutan hartuta, talde prozesu sortaile bat eragingo dugu talde dinamika berritzaile baten bitartez.

Metodologia berritzaile ezberdinak erabiliko ditugu: [Prozesu Lana \(Process Work\)](#), [U Teoria, gorputzean oinarritutako lana](#), arte eta kreatibitatea, eta [jendarte elkarrizketa](#) sustatzeko metodologiak hain zuzen ere. Era batera, orain arte gai hauek hausnartzeko erabili ez diren metodologiak erabiliko ditugu. Hemen ere, benetan den prozesu berritzaile bat eragitea nahi dugu. **Zer gertatuko lirateke ohiturako galderak beste metodologia eta pertsona ezberdinekin erantzuten/hausnartzen baditugu?**

### Norentzako da laborategia?



Talde anitz bat lortzea da gure helburua. Euskara eta etorkinen eko-sisteman bizi diren jokalariek guztiak elkartzea gustatuko litzaiguke. Gero eta anitzagoak diren taldeak gero eta sortzaileagoak dira; bai eragiten duten hausnartetan eta baita ere sortzen dituzten proposamenetan. Etorkinak, euskaltzaleak, elebidunak, gazteleraz soilik aritzen direnak, aisialdiko

profesionalak, hiritar soilak, ikasleak, irakasleak, euskaltegiko teknikariak eta koodinatzaileak, euskaldunberriak, euskaldunzaharrak, auzo eragileak, erakunde publikoetako euskara teknikariak eta erabaki hartzaileak, gizarte hezitzaileak, soziolinguistak, gizonak, emakumeak, gazteak, helduak, etb...denak ongi etorriak dira.

### Zer hizkuntzetan arituko gara?

Ikastaroaren hizkuntza nagusia euskara izango da eta denon artean kudeatuko dugu euskara eta gazteleraren arteko harremana. Beste hizkuntza ezberdinak agertzen badira denon artean erabakiko dugu nola kudeatu aniztasun hori. Hain zuzen ere, hau da praktikan hausnartzea nahi dugun gai nagusi bat: nola kudeatu egunerokotasunean hizkuntz ezberdinen arteko harremanak euskara dela medio. Zentzu honetan, laborategia gizarte esperimendu bat izango da.

### Zein da laborategiaren egitura?

Bi eguneko laborategia izango da. Talde prozesu bat eragiteko oinarrituta dagoen egitura bat da. Nola laborategi bat den, gune ireki bat alegia, tarte bakoitzerako galdera ezberdinak esploratzea proposatzen dugu. Lehen esan dugun bezala, talde prozesuaren hausnarketa sakontzeko metodologia ezberdinak erabiliko ditugu tarte bakoitzean.

**Lehenengo eguna.  
Iragana eta oraina**

**Bigarren eguna.  
Oraina eta etorkizuna**

<b>9.00-11.30</b>	Nondik nator? Zein da euskarekiko daukadan harremana?	Zeintzuk dira oztopoak eta erronkak? Nola kudeatu jokalaria ezberdinen arteko harremanak?
<b>11.30-12.00</b>	<b>Atsedena</b>	
<b>12.00-15.00</b>	Zer gertatzen ari da? Zeintzuk dira gaur egungo esperientziak? Zer ikasi dezakegu hortik? Ikasketak eta gogoetak	Nola hobetu/berriztu behar genituzke gure praktikak? Zer proposatzen dugu? Nola gauzatu proposamen horiek? Zein da nire ardura?

Izandako esperientzien haritik hasiko gara era sinboliko baten bidez: norberarena (esparru pertsonala) eta talderena (gizarte esparrua). Talde anitz bat izango denez gero hainbat ikuspegi, esperientzia, bizipen eta abar izango dira tokiko. Izandako esperientzien aniztasun hori etorkin-euskararen ekosistemaren konplexitatea ulertzen lagunduko gaitu: itzalean dagoena, argitara dagoena, ez genuena ikusten/irudikatzen, estereotipoak azalarazten, ustekabeko ikasketei lekua ematen, etb.

Lehen egungo arratsaldean gaur egun martxan dauden esperientziei buruz hitz egingo dugu. Zer esperientzia mota daude? Nork eraginda? Zertarako? Zein da etorkinen funtzioa esperientzia horietan? Eta erakunde publikoena? Euskaltzaleena? Zer harreman mota garatzen dira? Zer da lortutakoa? Zer jarraitu behar dugu egiten eta zer ez?

Bukatzeko, gogoeta kolektibo bat egingo dugu eta hausnarketa pertsonalari ere bere lekua emango diogu (integrazio pertsonala, barne lana).



Bigarren egunean oraina eta etorkizunaren arteko dantza baten arituko gara. Lehen egunean ikasitakoa eta gero, oztopoei eta erronkei begirada sistemiko berri bat emango diegu gorputzean oinarritutako metodologiekin. Nola erabili oztopo horiek proposamen berritzaileak sustatzeko? Nola hobetu jokalaria ezberdinen arteko harremanak? Zein faktore eta irizpide izan behar ditugu kontuan? Zer diote etorkinak? Eta euskaltzaleak? Eta euskaldun berriak? Nola lotu jokalaria hauen beharrak eta gogoak era eraikitzaile baten bidez?



Arratsaldean proposamen berriak edota berritzaileak ekoizten arituko gara. Horretarako, propotipoak garatzeko erabiltzen den metodologia baten oinarrituko gara. Zer ekintza proposatzen ditugu? Nola erakarri etorkinak euskarara? Zer era eta jarrera berriak sustatu behar ditugu? Zer trebetasun berriak garatu behar ditugu? Zer aldaketak egin behar ditugu gure politika publikoetan? Eta gure barnean?

## Dinamizatzailea

Iñigo Retolaza Eguren.

Eibartarra (1968). Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa (Valladolideko Unibertsitatea), Garapen Integralerako Bertako Kudeaketa Diplomata (Universidad NUR, Bolivia), Parte hartze, Poterea eta Eraldaketa Sozialean Maisua (Institute of Development Studies, University of Sussex, Ingalterra).



15 urtez bizi izan da Bolibian eta Erta/Hego Amerikako hainbeste aberrietan ere; horietatik 3tan Bolibiako komunitate quechua-aymaratan. Herritarren parte hartzea sustatzeko prozesuak bultzatzen, kultura-arteko elkarrizketak dinamizatzen eta komunitate bizitza garatzeko aholkularitza ematen aritu da bai Hego/Erta Amerikan bai beste kontinente eta aberrietan ere. Urte luzeetan (2006-2012) [Nazio Batuentzat](#) egin du lan Hego eta Erta-Amerikan jokalaria anitzen arteko elkarrizketak sustatzen gatazka politiko eta sozial testuinguruetan.

[Euskaltzaleen Topaguneko](#) kolaboratzailea da eta besteak beste [Zubideiak](#) ekimenaren antolakuntzan parte hartu zuen (bideoak [hemen](#)). Baita ere, gatazka politikoarekin lotuta dagoen oroimenaren eraikuntza soziala bultzatzen ari da [Memorialab](#) inizatibaren bitartez (Bakeola, Pake Museoa-Gernika, Gernika Gogoratuz erakundeekin elkarlanean).

Argitalpen batzuk: [Hiritar elkarrizketak Guatemala eta Bolibian](#), [Elkarrizketaren balioa testuinguru/prozesu konplexuetan](#), [Eraldaketa Sozialerako Teoria](#).

Egun Arantzazun (Arratian) bizi da eta nazioarteko aholkulari independentea da.